

## ZOLLOKO BOLATOKIAREN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA ERREGULATZEN DUEN ARAUDIA

### XEDAPEN OROKORRAK.-

**Aurretikoa.-** Zolloko bolatokia Zolloko herrigunearen jabetzako jabari publikoko ondasun bat da. Arrankudiaga eta Zolloko udalerrien bategite akordiotik ondorioztatu daitekeenez, haren oinarriak 1967ko martxoaren 16ko aktan jaso eta, ondoren, bere 10. oinarrian aldatu egin ziren 1968ko martxoaren 31n Zolloko udaletxean egindako osoko bilkuran; eta ondasun hau Arrankudiagako Udalaren ondasun izatera igarotzen den arren, Zollori dagokio, hala izanez gero, beronen administrazioa eta aprobetxamendua egitea. Gaur egun, Zolloko antzinako udalerriri dagozkion ondasunak aipatutako herriguneko auzo-batzordeak administratzen ditu; beraz, errealitate faktiko eta juridiko hori aintzat hartuta, aipatutako bolatokiaren jabetza duen udaletxe bakarria, Arrankudiagakoa, eta berau administratzea dagokion auzo-batzordea bat etortzeko ahalegina egiten da araudi honetan.

**1. artikulua.-** Zollo-Elexalden dagoen eta Zolloko herrigunearen jabari eta erabilera publikoko instalazioa den Zolloko bolatokiaren erabilera eta funtzionamendua erregulatzea da araudi honen xedea.

**2. artikulua.-** Zolloko auzo-batzordeak kudeatuko du Zolloko herrigunearen jabetzako erabilera publikoko instalazioa den Zolloko bolatokia.

**3. artikulua.-** Bolera hori Zolloko herriguneko herritarren kultur, gizarte, aisia eta aisialdi jardueretarako komunitate-erabilerarako izango da. Bolatokiaren lokala erabiltzeko, Arrankudiaga-Zolloko udalerrian egon beharko dira errolatuta eskaria egiten duten pertsonak.

Zolloko Batzordeak, halaber, Bolatokia, beronen aldamenean dagoen Zolloko Tabernaren lokal osagarri gisa aldizka erabiltzeko baimena eman ahal izango du, betiere, aipatutako batzordeak horretarako ezartzen dituen baldintza eta betekizunekin. Baldintza eta betekizun hauek erregelamendu honetan araututakoaren arabera ezarriko ditu batzordeak, askatasunez.

Ezin izango da Bolatokiko instalazioetan, ez erabilera edo okupaziorik, ez eta kultura, gizarte, aisia edo/eta antzekoen jarduerarik garatu Zolloko batzordeak aurretiaz eta berariaz dagokion baimena eman barik, aurretik ezarritakoaren arabera.

Artikulu honetan jasotakoa alde batera utzita, Zolloko herriguneak, Auzo-batzarraren edo Auzo-batzordearen bidez, bola-jokoa egiteko jatorrizko erabilerara bideratu ahal izango du bolatokia. Honek eraginik gabe utziko du araudi honetan ezarritakoa.

**4. artikulua.-** Honako hauek dira bolatokiaren erabilera lehenesteko irizpideak:

Lehenik eta behin, kultura-, gizarte-, aisialdi- edo/eta antzekotasun-jarduerak egiteari emango zaio lehentasuna, betiere, Zolloko Batzordearen alde aurreko baimena badute.

Bigarren, Bolatokia Zolloko Tabernaren lokal osagarri gisa erabiltzeko baimena eman ahalko da, betiere Batzorde honek horretarako ezarritako erabilera baldintza eta betekizunekin.

**5. artikulua.-** Honako arau hauek jarraituko dira erreserbak egiteko:

Zolloko Batzordeak ezarriko ditu Bolatokia kultur, gizarte eta/edo aisialdiko jarduererarako zein Zolloko Tabernaren lokal osagarri gisa erabiltzeko erreserbatu ahal izango diren egunak zein ordutegia; horrez gain, Batzordeak berak urtean zehar lokalari eman ahal izango dizkion erabilerak ikusi ostean, jakinarazi egingo dio Arrankudiagako Udalari, bolatokia erabilgarri noiz dagoen jakiteko egutegi bat egon dadin Udal Arretarako Zerbitzuaren bulegoetan.

Erreserba egiteko eskaera, araudi honen eranskinean jasotzen den eskabide-ereduan egingo da, Arrankudiagako Udaleko Herriarren Arretarako Zerbitzuetan (Udaletxean bertan). Honek, Auzo-Batzordera eramango du proposamena. Eskabidean, honako hauek zehaztuko dira: zein egunetan, zein ordutan, zertarako eskatzen den, lokalekoak ez diren zer elementu edo instalazio osagarri erabiliko diren eta eskabidearen erantzulea nor den. Era berean, Zolloko Auzo-batzordeak bolatokia erabiltzeari dagokionez udalarekin koordinatzeko duen arduradunari ere egin ahal izango zaizkio eskaerak, horretarako araudi honen eranskinean ezarritako eredu erabilia. Arduradun honek izango du Arrankudiagako Udaleko Herriarren Arretarako Zerbitzuari jasotzen dituen eskaerak eskualdatzeko ardura.

Eskaerek lehentasun-irizpideetan eta erreserba-egunetan bat eginez gero, auzo-batzordea izango da erabakiko duena, inguruabarrak kontuan hartuta.

Aurreikusitako erabilera baino 72 ordu aurretik, gutxienez, egin beharko dira erreserbak.

Zollo Tabernaren kasuan, urteko data desberdinetarako erreserba edo erabilera-eskaera behin bakarrik egin ahal izango da, edo, bestela, erabilera beharizanen arabera. Kasu horretan, erabilera bakoitzerako banakako eskaera egin beharko da.

Edozein modutan ere, Zolloko Batzordeak ezarriko du baimenean, erabilera-baldintzak, iraupena eta eskatzaileak kasu bakoitzean bete beharreko gainerako baldintzak, araudi honetan jasotako edozein erabilerari dagokionez.

Pertsona batek erreserbatutako ordua baldin badu eta erreserba ezin badu erabili, gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko dio Zolloko Batzordeari, jasota gera dadin. Bestela, pertsona horrek egiten dituen geroko erreserbak bertan behera uztea ekar dezake horrek.

Zolloko Batzordeak Bolatokiarene erabilera-baldintzak aldatzeko ahalmena izango du edozein unetan, bai eta obrak, matxurak eta antzeko beste arrazoi batzuk direla-eta instalazioak ixtekoa ere.

**6. artikulua.**-Zolloko Batzordearen aldetik Bolatokia erabiltzeko baimena jaso duen erabiltzaile orok, erreserbatutako egun eta orduetan instalazioak erabiltzeko eskubidea izango du, betiere Zolloko Batzordeak horretarako ezarritako betekizunak eta baldintzak betez.

**7. artikulua.**-Zolloko Bolatokiko erabiltzaileen betebeharrak dira:

Instalazioak Araudi honetan eta Zolloko Batzordeak honi buruz ezarritako gainerako xedapen zein erabilera-baldintzetan xedatutakoaren arabera erabiltzea.

Hala badagokio, Zolloko Batzordeak edo Batzorde horretan instalazioak zaintzeaz arduratzen direnek egin ditzaketen erabilera-oharrei erantzutea.

Instalazioak behar bezala erabiltzea, eta funtzionamenduari dagokion edozelako anomalia, haustura, hondatze eta antzeko zirkunstantziak Zolloko Batzordeari jakinaraztea, bai eta erabilera amaitu ostean instalazioak garbitasun eta erabilera baldintza egokietan, eta erabilitako elementu guztiak behar bezala jasota eta gordeta uztea, horretarako bideratuta dauden lekuetan, betiere horrelakorik egonez gero. Era berean, instalazioetan erabili diren kanpoko elementuak ere kendu egin beharko dira.

**8 artikulua.**- Erabat debekatuta dago:

Hondakinak, kalteak edo hirugarrenei eragozpenak sortzen dizkien edozein egintza egitea. Musikari eta zaratei dagokienez eragozpenak ohikoak izango dira.

Animaliak instalazioan sartzea.

Bolatokiko instalazioak edozein izaerako jarduerak egiteko erabiltzea Zolloko Batzordeak eman beharreko baimenik izan barik.

**9 artikulua.**-Araudi honetan xedatutakoaren arabera, bolatokiko instalazioak Zolloko Batzordeak baimendu gabeko edozein motatako jardueretarako erabiltzen badira, instalazioaren erabilera etetea agintzeko

ahalmena izango du Zolloko Batzordeak, berak egindako errekerimendu hutsarekin; horrek, instalazioak berehala uzteko beharrezana ekarriko dio erabiltzaileari, eta, baita ere, aipatutako errekerimendua egiteko unean erabiltzen ari den elementu eta instalazio guztiak berehala kentzekoa, bere kargura.

Bestalde, Araudi honetan erregulatutakoaren arabera, Zolloko Batzordeak Bolatokia erabiltzeko baimenetan ezarritako baldintzak eta gainerako zehaztapenak ez betetzeak, emandako baimena erabat eta alde bakarrez baliogabetzeko ahalmena emango dio Batzordeari. Kasu honetan, erabiltzaileak berehala utzi beharko du instalazioaren erabilera, Zolloko Batzordearen errekerimendua jasotze hutsarekin, eta horrez gain, instalazioak berehala utzi eta Bolatokian erabili edo gordailatu dituen elementu eta instalazio guztiak ere berehala kendu beharko ditu, bere kargura.

Era berean, aurreko paragrafoari jarraiki, Bolatokiaren erabilera eteteko eta hura utzarazteko eta elementuak kentzeko agindua ez betetzeak, berehala erabilera eteteko, utzarazteko eta elementuak kentzeko ahalmena emango dio Zolloko Batzordeari, bere bitartekoak erabiliz eta nahitaezko betearazte bidean, behartuaren kargura, hori guztia agindua ez betetearen ondorioz interesdunak izan ditzakeen era guztietako erantzukizunei kalterik egin gabe.

Erabilera eteteko eta utzarazteko agindua emanez gero, agindu hau jaso duen pertsonak ezin izango du Bolatokia erabiltzeko baimen gehiagorik jaso etokizunean, betiere Zolloko Batzordeak, gertatzen diren inguruabarrak aztertuta, beste erabakiren bat hartu ezean.

## **ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.-**

**10 artikulua.-** Araudi honetan xedatutakoa betez eta aurretik aipatutako kasuetan erabilera eteteko eta instalazioak utzarazteko beste erantzukizun eta betebeharrak batzuei kalterik egin gabe, arau-hauste administratibotzat jotzen dira bai Zolloko Batzordeak eman beharreko baimen barik bolatokiko instalazioak jardueretarako erabiltzea bai Zolloko Batzordeak Bolatokia erabiltzeko dagozkien baimenetan ezarritako baldintzak eta gainerako betekizunak ez betetzea; honek, egindako arau-hauste bakoitzagatik eta hauen larritasunaren arabera, arau-hausleari ohartarazpen zehapen hutsa, edo, 350 eurora arteko isuna ezartzea ekarri ahalko du.

Arrankudiagako Udaleko alkatetzarena izango da, ofizioz edo Zolloko Batzordearen beraren aurretiazko salaketaren ondorioz, dagokion zehapen espedientea hasteko eta, kasua balitz, dagokion zehapena ezartzeko eskumena. Espediente hau Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritako arauen, printzipioen eta prozeduraren arabera izapidetuko da.

## **AZKEN XEDAPENAK.-**

**Lehenengoa.**-Araudi honetan ezarritakoa argitzeko edo garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena du Zolloko Batzordeak, betiere bolatokiaren erabilera zuzena lortzearren.




**Bigarrena.**-Araudi hau indarrean sartzen denean, Zolloko auzo-batzordeak bere kideen artean izendatuko du Arrankudiagako Udalaren eta Zolloko Batzordearen arteko koordinazio-lanen ardura izango duen pertsona eta, ostean, Arrankudiagako Udalarari jakinaraziko dio.

**Hirugarrena.**-Bolatokiko giltzen kopia bi baino ez dira egongo, hauetako bat Zolloko auzo-batzordeak edukiko du eta, bestea, Arrankudiagako Udal bulegoetan egongo da.

**Laugarrena.**-Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean bere osotasunean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

## **ZOLLOKO BOLALEKUA**

<b>ESKATZAILEAREN DATUAK</b> <b>DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE</b>	
<b>IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS</b>	<b>NAN / DNI</b>
<b>HELBIDEA / DOMICILIO</b>	<b>HERRIA / LOCALIDAD</b>

		
---	---	---

***Bolalekua erabiltzeko egunak, erabilera eta beste zehaztasun batzuk /días, utilización y otras especificaciones:***

***Idatzi honen bitartez:***

*Por medio de la presente:*

- ***Zolloko Bolalekua erabiltzeko baimena eskatzen dut.***  
*Solicito autorización para hacer uso de la Bolera de Zollo.*
- ***Adinez nagusia naizela adierazten dut.***  
*Declaro ser mayor de edad.*
- ***Bolalekua erabiltzeko arauen berri badudala eta onartzen ditudala adierazten dut.***  
*Afirmo conocer y aceptar las normas de uso establecidas para la Bolera.*

<b>(Tokia eta eguna / Lugar y fecha)</b>	<b>(Sinadura / Firma)</b>
<b>Arrankudiaga eta Zollon,</b>	

Orri honetako datu pertsonalak jasota datoz eskabidearen egileak hala onartuta. Datuok tratamendu automatizatua izango dute eta Arrankudiagako Udaleko informazio sisteman sartuko ditugu. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez ditugu erabiliko, eta beste Administrazio Publiko batzuei edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal zango dizkiegu, Norberaren Datuak babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasota datozen kasuetan. Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da Arrankudiagako Udalean.

Los datos personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Arrankudiaga. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o a terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición en el Ayuntamiento de Arrankudiaga.